

## Eman eta jaso

Ez dut inoiz konprenituko ezin konpreni dezakedala dena. Ezin konpreni dezaket nola izan daitekeen artea horren garrantzitsua jende pila batentzat, baina pertsona batek ere ezin didan arteari buruzko definizio logikorik eman; inork ezin dit esan objektiboki artea zer den, guztiz subjektiboa dela denek kartsuki ukatzen duten arren. Letoizko galdera ikur bana txertatzen diet lagun artistei bihotzean, ez dezaten ahaztu ezin izan dutela sekula egin didan galderarik absurdoena erantzun.

*Ez ditut museoak maite. Minutu erdia eskainita ezin liteke koadrorik uler; intelektual usteko gizon betaurrekodun gehiegi joaten da, gainera; eta arras artista gutxi. Prado, Reina Sofia, Tyssen... Zertarako daude hor? Hiria bere baitan da artelan, ez da sarrera ordaindu beharrik bazter guztietan koadroak ikusteko. Gela hutsetan sortzen den adina oihartzun duten gela ustez beteekin ez naiz inoiz fidatuko.*

*Museoak plastilinazko gartzelak dira: Prosegurreko langileak, laukietan itxitako istorioak eta jendea, jende erraria, inork eutsiko ez balu supituan eroriko litzatekeen eraikin handiegi batean. Canon edo Kodak markako idunekoak, beren lekuetatik ateratzen diren begiak; objektiboak, reflexezkoak; eta karratu itxiak karratu itxi txikiagoetan almazenu nahi dituen masa sasi-kultureta plastikozko begirada garestien atzean ezkutatuta. Neoliberalismoaren eta postmodernitatearen aurretik korrika, liderra direlakoan, baina denak pelotoi beraren parte; liderrez osatutako pelotoia edo izango da. Ezin (bir)harrapa zaitzake aspaldi barruan zauzkanak.*

Monikek urduri jartzen nau, letoizko galdera ikurra oparitu nionetik kartoizko galdera ikurrak baino ez dizkit ematen: eskukadaka. Motxila bete daukat etxean. Badakit nahita egiten duela, umoretik baina herraz, mendeku gosez.

- Ba al dakizu nola aldatzen duten kamaleoiek kolorez?
- Ez... kontatu!
- Ez, ez... nik ere ez dakit, baina dena jakin nahi izaten duzunez, hau ere jakingo zenuela uste nuen.

Akabo, beste kartoizko galdera ikur bat, eta horren atzetik beste zortzi (galdera ikurrak oso erraz ugaltzen dira, infinituraino, beno ia infinituraino, oraindik infinitua existitzen den ez

daukat-eta oso argi). Kartoizkoak dira ez zaizkidalako interesatzen; berez, Monikek emango ez balizkit sekula ez nituzkelako izango, eta ez nituzkelako gau osoak Wikipediako artikulua eta Youtubeko bideoak ikusten pasa beharko, badaki jakin-min konbultsiboarena eta jaten ematen dio, lehertu arte.

*Gorrotu dut jakin-mina, Teresarena bereziki. Dena jakin behar, derrigor. Jakitekoak bilatzen dizkigu eta jakitekoak pilatzen zaizkio. Bere jakin-mina nondik ote datorren jakiteko gogoia etortzen zaion egunean amaituko da mundua, metajakin-mina da hirugarren mundu gerra; Teresaren baitako mundu gerra, txikia, baina oso suntsitzailea.*

*Bihotzerrea izaten dut sarritan, Teresak arte sistemari, artistei, artelanei... orokorrean arteari buruz galdetzen didanean. Artista kontsideratzen nauela berak, artea dela nire esparrua eta jakin egin behar dudala oinarritzko kontzeptu hori definitzen. Artea definitzea dela esan nion behin, dena izan daitekeela artea eta era berean izan daitekeela ezer ez izatea. Horiek barreak egin zituenak, sekula entzundako definizio txarrena omen; ea zergatik instituzionalizatzen dugun orduan artea horren erraz, ea zergatik existitzen diren museoak, ea zergatik den Kandinskyren koadro bat artea eta bere bost urteko ilobarena ez, Miren txikiaren etxetxoek egon beharko luketela museoetan zintzilik eta ez tipo arraro horren lanek; ea zergatik, zergatik eta zergatik. Museoei buruzko txapa bota nion orduan; baina horrek ere ez ziola balio.*

*Ordutik nahita egiten dizkiot galdera absurdoak, noizean behin bihotzerrea senti dezan berak ere: eman eta jaso "my friend".*

\*\*\*

Galdera ikur bana tatuatu dugu gaur: ezkerreko besaurrean nik eta eskuinekoan Monikek. Arteaz ezer ez dakiela esan diot.

*Galdera ikur bana tatuatu dugu gaur: eskuineko besaurrean nik eta ezkerrekoan Teresak. Dena jakin aurretik hilko dela esan diot.*

(Ezetz erantzun diote elkarri, eta film plastikoan bildutako galdera ikur bana itsatsi dute elkarren bizkarrean, besarkadaren aitzakiaz baliatuta.)